

# Marchas montañeras y Ultra-Korrika por la moratoria de macroproyectos eólicos y fotovoltaicos

HAIZE BERRIAK :: 03/05/2021

Las marchas recorrerán los 9 valles afectados por los 5 proyectos eólicos promovidos por Sacyr y culminarán con una "Ultra korrika" que atravesará todo el territorio afectado

## [Euskara]

**Bederatzi Mendi Martxak: Haize Berriak 5 mendi martxa eta "Ultra korrika" bat antolatu ditu Nafarroako makropeoiektu eoliko eta fotovoltaikoen moratoria eskatzeko**

**Mendi martxak Sacyrek sustatuko 5 parke eolikoen eraginpean dauden 9 ibarretan barna izanen dira eta ibar guztiak zeharkatuko dituen "Ultra korrika" batek emanen die amaiera**

HAIZE BERRIAK Koordinakundeak 5 mendi martxa eta "Ultra korrika" bat antolatu ditu Sacyrek 9 ibarretan (Odieta, Xulapain, Ezkabarte, Olaibar, Anue, Valle de Egüés-Eguesibar, Erroibar, Lizoaín-Arriagoiti eta Esteribar) proiettatutako 5 parke eolikoen eraginpean geratuko litzatekeen eskualdea ezagutarazteko asmoz.

**Ekimenari hasiera maiatzaren 9an, igandea, emanen zaio Anotz herrian goizeko 10etan.** Bertatik Aldaun eta Mendurro gainak igoko dira, 1. parkeko haize-sorgailu guztien erdien kokaleku. Bukatutakoan lekukoa 2. parke eoliko eta goi-tentsioko linearen eraginpean leudekeen bizilagunei pasako zaie. **Igandez-igande** lekukoa bizilagun ezberdinek jasoko dute, 5 parke eolikoen eraginpean dauden ibarrak zeharkatuz.

Bataz-bestez **160 km zeharkatuko dituen "Ultra Korrika"** batek emango die amaiera mendi martxei, asteburu bakar batean ibar guztiak zeharkatuz.

Mendi martxa guztiak WIKILOC sare sozialean aurkitu daitezke eta bertan ibilbideak zein hauen ezaugarriak (luzera, iraupena, kokapena,...) azaltzen dira. Horretaz gain, Haize Berriak martxen berri ematen ari da sare sozialen bidez (Twitter, Facebook Instagram eta Youtube) zein martxen informazioa zabaltzeko sortutako webgunearen bidez:  
[www.mendimartxaknafarroa.org](http://www.mendimartxaknafarroa.org)

Ekimen honen bidez Haize Berriak Sacyrek aurkeztutako proiettuen eraginpean dauden ibarrak ezagutarazi eta balorean jarri nahi ditu. Honekin batera, Nafarroako makroproiektu eoliko eta fotovoltaikoen moratoria aldarrikatu eta Nafarroa mailan trantsizio energetiko eta energia berriztagarrien inguruko eztabaidea sozialerako deia egiten du.

Haize Berriak

## [Castellano]

## **Bederatzi Mendi Martxak: Haize Berriak organiza 5 marchas montañeras y una "Ultra Korrika" solicitando la moratoria de macroproyectos eólicos y fotovoltaicos de Navarra**

**Las marchas recorrerán los 9 valles afectados por los 5 proyectos eólicos promovidos por Sacyr y culminarán con una "Ultra korrika" que atravesará todo el territorio afectado**

La Coordinadora HAIZE BERRIAK ha organizado 5 marchas montañeras y una "Ultra Korrika" para dar a conocer los territorios afectados por los 5 proyectos eólicos promovidos por Sacyr en 9 valles (Odieta, Juslapeña, Ezkabarte, Olaibar, Anue, Valle de Egüés-Eguesibar, Valle de Erro, Lizoain-Arriasgoiti y Esteribar).

**La iniciativa comenzará el domingo 9 de mayo a las 10h. en Anotz** y subirá a las cimas de Aldaun y Mendurro, afectados por el Parque 1. Al finalizar la marcha montañera, se cederá el testigo a vecinos y vecinas de los valles afectados por el Parque 2 y la línea de alta tensión, y así sucesivamente **cada domingo**, hasta recorrer todos los territorios afectados por los 5 parques eólicos.

Para culminar las marchas, entre el 26 y 27 de junio se correrá una "**Ultra korrika**" de **alrededor de 160km** que atravesará todos los valles a lo largo del fin de semana.

Cada una de las marchas montañeras estará vinculada a la red social WIKILOC, en la que se muestran todos los recorridos y características (localización, desnivel, longitud,...) de los mismos. Además, Haize Berriak ha generado una página web con información sobre las marchas: [www.mendimartxaknafarroa.org](http://www.mendimartxaknafarroa.org) que se suma a las Redes Sociales que mantiene activa la Coordinadora (Twitter, Facebook e Instagram).

Con esta iniciativa Haize Berriak pretende dar a conocer y poner en valor el territorio que se vería afectado si se desarrollaran los proyectos presentados por Sacyr en estos valles. Además, revindica la moratoria de los macroproyectos eólicos y fotovoltaicos de Navarra e insta a un debate social sobre la transición energética y el desarrollo de las energías renovables en Navarra.

Haize Berriak

---

<https://eh.lahaine.org/marchas-montaneras-y-ultra-korrika>